

POESIA ETA MUSIKA

EKAINAK 6, 19:00EAN - ANTOINE D'ABBADIE ARETOA (SOKOBURU-HENDAIA)

*Herri
bihurtu
zaidan
deserrian*

Jon Garmendia
Xabier Solano
Keu Agirretxea
Ortzi Oihartzabal
Xabi Azkarate
Eider Eibar

SARRERA: Aitzinetik 8€ - Bertan 10€

SALMENTA PUNTUAK: Hernani (Garin) · Donostia (Aurreku)
Baiona (Elkar) · Ziburu (Bittor) · Donibane Lohizune (Battela)

LAGUNTZAILEAK



VILLE
D'HENDAYE
HENDAIKO
HERRIKO
ETXEA



eke icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

«Herri bihurtu zaidan deserrian» olerki eta kantu emanaldi bat da, poema eta kantu akustikoen bilduma bat. Emanaldiak etxea atzean utzi eta toki ezezagun batean bizitzen jarraitzen duenaren istorioa kontatzen da.

Izan ere, bidai baten kontakizuna da, erbesteratuaren min intimoenak, hausturak, zalantzak, hutsuneak eta pozak islatzeko saiakera bat.

Askoren historia izan daiteke, baina kasu honetan Jon Garmendiak idatzitako poemak hartu ditugu, bere egiazko bidaiaren kontakizun gisa. 10 urtetan idatzitako poemak dira.

Taldea, bestalde, Xabi Solano musikariaren gidaritzapean ari da. 2015eko ekainean aurkeztuko da Hendaian, eta beste emanaldiak urte bereko neguan eskainiko dira.

Partaideak:

Jon Garmendia: Idazlea. 20 urtetik gora daramatza musika munduan abestiak idazten (Etzakit, Esne Beltza. ..) Ehun abesti baino gehiago idatzi ditu. Lehen aldia da atzeko lerrotik aurrekora iragaten dena, poemak errezitatzen jardungo baita. Egun kazetari gisa dihardu.

Xabi Solano: Musikaria. Esne Beltza taldeko ahots nagusia da, kantuen egilea, trikitilaria. 1994an osatu zuen Etzakit musika taldea, eta geroztik proiektu desberdinetan aritu da, ezagunak egin diren musika taldeen gidaritzan, nagusiki, Fermin Muguruzaren ondoan. Musika irakaslea da.

Keu Agirretxea: Musikaria. Estilo desberdinetan idazten eta interpretatzen duen gitarjolea, abeslaria eta konposatzailea da. Uek, Governors, Fjord, Psychophony edo Etsaiak taldeetako kidea izan da, besteak beste.

Ortzi Oihartzabal: Biolina. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren lehen biolina da 2001 geroztik. Jean Michel Denisekin eman zituen 10 urte biolina ikasten eta ondotik Bordeauxko kontserbatorioan. Londoneko Royal Academy of Music-ek

hautatu zuen, eta han amaitu zituen ikasketak.

Xabi Azkarate: Perkusionista. Zumaiko musika eskolako irakaslea, musika talde askorentzat aritzen da oinarriak lantzen. Etengabeko esperimentazioa du ardatz.

Eider Eibar: Ilustratzailea. Arte Ederrak eta animazioa ikasi zuen eta gaur egun ilustratzaile modura ari da lanean. Castillo Suarez, Toti Martinez de Lezea, Xabier Mendiguren eta Miren Agur Meabe bezalako idazleek bere ilustrazioak erabili dituzte ipuinak lagunduta irudimena hegan eta dantzan jartzeko.

Soinu teknikaria **Paxkal Etxepare** hazpandarra izanen da eta Argi teknikaria **Jon Mentxaka** bilbotarra.

Emankizunaren estreinaldia Hendaian izango da, Ekainaren 6an, Zokoburuko Antoine D'Abbadie aretoan, arratsaldeko 19:00ean.

Sarrerak 8 eurotan eskura daitezke aurretik, bertan 10 eurotan salduko dira.

*Etortzen ez bazara
ez da ezer gertatzen,
baina etortzen bazara
gertatuko da:
zoriontsu egingo nauzula*

Jon Garmendia 'Txuria'

